

euskararen
donostia
patronatua

HAUR ANTZERKIA

- **Kiki, Koko, Moko eta Flax**
Abenduaren 28an, 18.00etan
Antiguako frontoian

ANTZERKIA

- **Eguzkiaren irrifarra**
Kuasi Modu taldea
Abenduaren 22an, 17.00etan
Larrotxene Kultur Etxean
- **Makineroa**
Detraka taldea
Abenduaren 28an, 17.00etan
Egia Kultur Etxean (kalean)

MUSIKA

- **Beñat Achiary, Joel Mehra (Zuberoa)**
Abenduaren 19an, 20.00etan
Larrotxene Kultur Etxean
- **Ruper Ordorika**
Abenduaren 20an, 21.00etan
Egia Kultur Etxean

BERTSOLARITZA

- **Bertsolari Txapelketa Nagusia**
Abenduaren 16an, 11.00etan
eta 16.30etan
Donostiako Belodromoan

LITERATUR SOLASALDIA

- **Urregilearen orduak**
Pako Aristi
Dinamizatzailea: Felipe Juaristi
Abenduaren 20an, 19.30etan
Liburutegi Nagusian

IPUINAK

- **Ipuin Erotikoak**
Jose Mari Karrera
Abenduaren 29an, 19.00etan
Egia Kultur Etxean



HISTORIA. Euskal historiografia gutxi garatuta dagoela azpimarratu zuten bost hizlariek



JOXE LACALLE
Ezkerretik, Joseba Agirreazkuenaga, Manex Goienetxe eta Mikel Aizpuru, hizketan.

Euskal historiografiaren argi-ilunak agerian Iruñean

Gaiaz mintzatu ziren Agirreazkuenaga, Mees, Aizpuru, Goienetxe eta Majuelo historialariek Geronimo Uztarizen mintegian

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Euskal Herriko historiografia izan zuten hizpide Joseba Agirreazkuenaga, Mikel Aizpuru, Manex Goienetxe, Emilio Majuelo eta Ludger Mees historialariek herenegun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, erakunde horrek eta Geronimo Uztariz Historia Institutuak antolatu mintegian. Ikuspuntu orokor eta zehatzak eskaini zituzten adituek, eta, batez ere, euskal historiografia gutxi garatuta dagoela eta hausnarketarako beharra azpimarratu zuten.

Mintegiak izaera ireki eta zabala zuten eta hara hurbildu ziren hainbat historialari, irakasle eta ikasle. Haien aurrean Agirreazkuenaga izan zen hitza hartzen lehena. Lehenik eta behin, historia atzera begira bainoago, etorkizunari so eginez idazten dela azpimarratu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko katedradunak. Agirreazkuenagak nabarmendu zuten, halaber, historiografia ez litzatekeela bakarrik historialarien ikuspuntua araberaren egin behar, eta literatura historikoaren ekarpena ere kontuan hartzekoa dela. «Unamuno edo Baroja bezalako idazleak gure historiografian sartu beharko lirateke».

Beste bi izen aipatu zituen historialariak: Lefebvre geografoa eta Julio Caro Baroja idaz-

lea; historialari sozialtzat jo zuten azken hori Agirreazkuenagak. Lefebvrerekin «historiografia zientifikoan goren maila» lortzen dela erran zuten, eta, Barojarekin batera, Euskal Herriko historiografiaren zutabetzat jo zuten.

Bestalde, Euskal Herriko historia nazional bat idazterakoan lurraldeak ezin duela muga izan azpimarratu zuten, eta ezin direla ahaztu euskaldunak hartu dituzten Argentina edo Uruguai bezalako hainbat herri.

Klasikoen lana berreskuratzeko beharra

Historiografiari buruzko ikuspuntu orokorra eskaini zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Emilio Majuelok ere bere solasaldian. Euskal eta bereziki nafar historiografia oso gutxi garaturik dagoela erranez hasi zuten, eta, aldi berean, dagoena gutxi izanda ere, egindako lan hori berreskuratzeko eta ezagutzera emateko beharra azpimarratu zuten. «Aurkitzeaz dagoen altxorra da euskal historiografia».

Altxor hori topatzeko, «klasi-koak berreskuratzeko», lan proposamen bat egin zuten Majuelok: «Batetik, 1770 eta 1970 urte bitartean izan diren euskal historiaren ikertzaile sutsuen eta historiazale amorratuen lanari buruz ikerketa eginen hasi

behar dugu, eta, bestetik, tokian tokiko historia landu». Majueloren ustez, azken hamarkadetan gertatutakoa ere ezin dugu ahaztu, eta «80ko hamarkadatik aurrera egindakoari historiografia aplikatu» beharra nabarmendu zuten.

Ipar Euskal Herria eta Berrezarkuntza garaia

Mikel Aizpuru eta Manex Goienetxek une zehatzetako historiografia aztertu zuten. Goienetxek Ipar Euskal Herriko XIX. mendekoa hartu zuten hizpide, eta, Aizpuru, berriz, Berrezarkuntza garaiko historiografia.

Ipar Euskal Herriko produkzio historiografikoa aztertu zuten Goienetxek eta bi garai bereizi zituen: XIX. mendeko lehenengo eta bigarren zatia, alegia. «Lehen basamortua izan zen; bigarrenean etorri zen bultzada». 1880. urtetik aurrera egin zuten goiti produkzio historiografikoak Ipar Euskal Herrian, batez ere, eta produkzio horretan Elizarenak pisu nabarmena izan zuela nabarmendu zuten Goienetxek.

Elizaren produkzio horren baitan bi izen aipatu zituen, Piarres Haristoi eta Vincent Dubarat. «Haristoi Frantziako iraultzaz idatzi zuten, batez ere, eta Dubaratek, berriz, protestantis- moaz», azaldu zuten.

ESANAK

J. AGIRREAZKUENAGA
«Historia etorkizunari so eginez idazten da, ez iraganari begira»

EMILIO MAJUELO
«Aurkitzeaz dagoen altxorra da euskal historiografia»

MANEX GOIHENETXE
«1880. urtetik aurrera gertatzen da bultzada Ipar Euskal Herriko historiografian»

MIKEL AIZPURU
«Askok Espainiako historiografian kokatzen du bere lana»

LUDGER MEES
«Profesionalizazioak aldaketa ekarri zuen historiografian»

Berrezarkuntza garaia nabarmendu zuten, bestalde, Mikel Aizpuru, eta dagoena Euskal Herriko bainoago probintziala dela. EHUko irakasleak agerian utzi zuten, halaber, «historialari askok euren lana Espainiako historiografian kokatzeko arazo gutxi» dutela eta «gure erreferenteak Espainiakoak» direla. «Horren inguruan hausnarketa egin beharra dago».

Euskal nazionalismoa historiografian

Ludger Meesek itxi zuten mintegia, eta hark historialariek asko landu duten gaia jorratu zuten: nazionalismoarena, alegia. Gai horren inguruko lehen ikerketak aldekoak edo kontrakoak zirela azpimarratu zuten Meesek, baina historiografia profesionalizatu ahala egoera aldatuz joan zela gaineratu, unibertsitateen sorreraren ondorioz, batez ere.

Nazionalismoaren inguruko ikerketen ekarpeni dagokienez, nazionalismoak herrialdeka izan duen garapena ezagutzeko parada eskaini duela erran zuten, baina «azken hitza esan gabe» dagoela. Egindako lana asko bada ere, oraindik hutsuneak badirela gaineratu zuten irakasleak eta horien artean nabarmendu zuten hauteskondeen historia aztertzeko beharra.